


UZTARRIA

GUKA

JOXIN AZKUE

HISTORIA, TXIKITIK HANDIRA



**MILAR
LARRAMENDI**

Etiketresna elektrikoak



www.milar.es

webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA

943-85 18 97

dyson v8 absolute

399 €



dyson cyclone v10

absolute

599 €



dyson

MILAR LARRAMENDIN

AURKI DITZAKEZU

DYSON PRODUKTUAK

Ureztaketa & Lorezaintza

PRESTATU ZURE LORATEGIA UDARARAKO



KIMUBAT

— TALDEA



Zure ureztaketa sistema instalatzeko material guztia gure gardenean aurkituko duzu!
Instalazioa egiteko laguntza behar duzu? Jarri gurekin kontaktuan konpromisorik gabe.

Urretilla bidea, Azpeitia
943 15 00 85 | www.kimubat.es





UZTARRIA 261

2023- EKAINA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA.

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Korapiloa Julene Frantzesena, <i>Odola.</i> | 24 | Guka, Parean eta pareko Julen Portillo eta Nerea Rodriguez, eduki sortzaileak. |
| 6 | Hementxe bertan Camila Ignacia Muñoz, Azpeitian bizi den txiletarra. | 33 | Lehiaketa |
| 8 | Nire leihotik Haizea Salegi, <i>Loratzea Parisen.</i> | 34 | Erretratua Silvana Huegun, nutrizionista. |
| 10 | Iritziak Luis Gurrutxaga, <i>Banda; Txetxu Urbietta, Bidea.</i> | 38 | Plazan Bazan |
| 12 | Elkarriaketa Joxin Azkue, historialaria. | 40 | Iritzia Ione Gurrutxaga, <i>Faunak.</i> |
| 18 | Iritzia Imanol Amiano, <i>Eoliko anonimoak.</i> | 42 | Erreportajea Galdutakoen jabe bila. |
| 20 | Guka gara! | 46 | Iritziak Miel A. Elustondo, <i>Irunberri, 1990;</i> Sara Amenabar, <i>Maskararik gabe.</i> |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
azpeitia@ukt.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:
Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Julene Frantzesena
Maialen Ebaniz
Mailo Oiarzabal

Ihintza Elustondo
Nerea Uranga
Diseinu arduraduna
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Haizea Salegi
Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbietta
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Sara Amenabar

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Babesleak:





ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA
Urtzarte 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

IRENE ALTUNA
JORDONEN

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ireneadenda.com



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**

KIRURI



JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62

Tuba
ehelbularitza

Anakularitza
Itxura
Jekuntza
Kontaketa

Gestioi lanak
Finanzen administrazioa
Gestioi-irabazgarritasunak

Tfn.: 943 157 325 Faxa.: 943 157 375
Buztina: nafra-43-4100000000000000



**JARRI HEMEN
ZURE
IRAGARKIA**

CITROËN **Alertza Autoak**
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
alertza@alertzaautoak.com



EuroTaller EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

adi ARTE ETA
DISEÑO
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artalexe kalea, 3
943 81 20 08
artalexe@adi.es
Matritula urte osoan zabalik

IKA argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urtel: 618 96 49 95 / Jari: 649 12 02 71
ikaargilana@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KÓLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urtel.: 943 81 57 81

Odola



JULENE FRANTZESENA

Eskuak burura eraman ditugu Orion hilketa matxista izan dela jakin berritan. Nola liteke? Nola gerta daiteke halako basakeriarik? Horrelakoak, oraintsu arte, Ebrotik behera gertatzen zirelakoan geunden asko, baina etxe ondoan ere modu berean pasatzen dira. Izan ere, aski jakina da indarkeria matxistak ez dituela mugak bereizten, indarkeria matxistak ez duela mugarik.

Bada, baina, egunotan barrenak mugiarazi dizkidan beste kontu bat, hilketa horri zuzenki lotutakoa. Orioko hilketa gertatu eta gutxira, argazki ugari hasi ziren sarean eta hedabideetan barrena zabaltzen: hildakoen aurpegiak pixelatutakoak, hilotzak izaraz estalita ageri zirenak, Ertzaintza hildakoei izara jartzen aritu zen unekoak, ezkerretik ateratako argazkiak, eskuinetik egindakoak, etxeren bateko altueratik angelu pikatuan hartutakoak...

Irudiaren aroan bizi garen honetan, irudiak inoizko garrantzi handiena duen aldi honetan, sekula baino errespetu gutxiagoarekin erabiltzen ditugu horiek. Teknologiak aurrera egin duen heinean, gizakiok atzera egin dugun sentipena daukat. Etika gutxi erakusten dugulakoan nago, eta erantzukizunik hartu, batere ez. Lerrootan ez naiz hasiko moralari buruzko gogoetan, baina uste dut barra-barra kontsumitzen ditugun irudien gaineko kontzientzia pixka bat hartu behar genukeela, gutxienik. Izan ere, zenbatetan zabaldu dira –edo ditugu– protagonisten intimitatea urratzen duten irudiak?

Eta sare sozialetan nola, hedabide askotan ere hala. Clickbaitaren hatzaparretatik ihes egiteko asmo txikienik ere ez duten hedabide horientzat opari baino ez dira irudiok. Antza, indarkeria matxistak lege, morboak ere ez du mugarik batzuentzat. Argazkiak esplizituak badira oso ondo, eta odola agertzen bada, askoz hobe! Badirudi biktimarekin eta haren gertukoekin asko pentsatu gabe egiten dituztela halakoak, baina ez; gero eta garbiago daukat nahita, oso nahita egiten dituztela, helburu bakar batekin: bisitak. Izan ere, odola baino zer hoberik indarkeria matxista ilustratzeko?

Nik ere ikusi nituen irudiok, bai, ez dut ukatuko, baina kezka sentitu nuen, eta nazka ere bai, zergatik ez esan. Kezkatzen nauena da irudiok besterik gabe kontsumitu ditugula, askorik harritu eta haserretu gabe, eta hildakoak ikusi ditugula aurpegia pixelatuta edo izaraz estalita, eta ez garela beldurtu; ze gure pantaila txiki, ertain eta handi guztietara iritsi diren irudiak ezer badira, beldurgarriak eta salagarriak dira.

Tarantinoren pelikula bat ikusi ostean egindako amets batean agertutako irudiak balira sikiera Oriokoak... ■■■

**ANTZA, INDARKERIA
MATXISTAK LEGEZ,
MORBOAK ERE EZ DU
MUGARIK
BATZUENTZAT**

Camila Ignacia Muñoz: "Euskarak asko lagundu dit"

TESTUA: **MAIALEN ETXANIZ**

ARGAZKIA: **UTZITAKOA**

Txileko Santiago hiria atzean utzi eta Azpeitira iritsi zen Camila Ignacia Muñoz (Santiago, 1990) duela urte eta erdi inguru, maitasun kontuak tarteko. Pandemia garaian ezagutu zuen gaur egun bere bikotekidea dena, azpeitiarra bera, eta orduz geroztik, Azpeitira lotu da txiletarra. Hiriko bizitza faltan sumatzen duen arren, Azpeitian "seguru eta gustura" sentitzen dela dio.

Noiz eta nolatan iritsi zinen Azpeitira?

2021ean etorri nintzen aurrenekoz Azpeitira. Nire mutil lagunak Bielen egiten du lan, eta laneko kontuak tarteko, Txilera joan behar izan zuen 2021ean. Orduan ezagutu genuen elkar, hura Txilen zegoela. Hilabete bat igaro zuen han, laneko proiektua hilabete bakarrekoa baitzen. 2021ean bi aldiz etorri nintzen Azpeitira, bikotekidea bisitatzen. Behin 2022an sartuta, erabaki bat hartu beharra geneukala sentitu genuen: edo bera Txilera joan edo ni Azpeitira etorri. Beraz, hautua egin eta ni etorri nintzen Azpeitira.

Nola oroitzen dituzu aurreneko egunak? Zer sentipen izan zenituen?

Aurreneko egunetan oso gustura sentitu nintzen. Herria zoragarria iruditu zitzaidan, mendiz inguratua, garbia... Baina berehala ohartu nintzen hemen zerbitzuak ez direla han bezalakoak. Hau da, Santiago hiri handia da, eta edonon askotariko dendak eta saltokiak daude. Edozein unetan joan zaitezke ilea moztera edo manikura egitera. Azpeitian, herri txikia izanik, eskaintza murriztagoa da. Zentzu horretan talka kulturala nabaritu nuen. Oraindik orain ere sentitzen dut merkatalgune handien falta [barrez].

Hizkuntza berriarekin egin zenuen topo. Zaila izan al zen euskal giroa moldatzea?

Hasieran oso gogorra izan zen. Ez nuen ezer ulertzen, eta dena zegoen euskaraz idatzita: aireportuko kartelak, errepidekoak, tabernetakoak... Aurreneko egunetan eta asteetan buruko mina ere eragiten zidan euskara entzuteak. Nire baitan pentsatzen nuen ea noiz iritsiko zen euskaraz hitz egingo nuen eguna. Iritsi bezain pronto joan nintzen Euskaltegia, eta orduz geroztik, ikasten ari naiz. Ordu asko

igarotzen ditut Euskaltegian, eta irakasleak asko lagundu dit; oso jatorra da.

Baliagarria izan al zaizu euskara ikastea?

Oso aberasgarria eta baliagarria da. Euskarak asko lagundu dit: hemengo jendearekin harremanak egiten eta sozializatzen, lagunak egiten, ingurua hobeto ulertzen... Hemengo hizkuntza ikasi beharra dago, nola bertakotzen zara bestela? Zenbait lanetan aritzeko ere eskatzen dute euskara jakitea. Niri, egia esanda, ez zidaten halakorik eskatu, baina beti saiatzen nintzen euskaraz erantzuten. Modu horretan ere asko ikasi nuen.

Zer da Azpeititik gehien atsegin duzuna? Eta zer gutxien?

Inguruko paisaiak eta herriko lasaitasuna dira gehien atsegin ditudanak. Oso seguru sentitzen naiz Azpeitian. Santiagon sakelako telefonoa beti eskuan eramaten nuen etxerako bidean. Hemen lasai bizi naiz. Gainera, jendea oso irekia eta jatorra da, nahiz eta batzuek bestelakoa dioten. Azpeitiko jendea oso ondo portatu da nirekin. Aldiz, gutxien atsegin dudana da ez dagoela azpiegitura edo merkatalgune handirik. Nolabait, hiriburuko bizitza falta dut hemen.

Hiriko bizitzaren faltan, joaten al zara inguruko hiriburuetara?

Bai, askotan joaten naiz Donostiara. Herrietako aisialdia hiri handietakoaren oso desberdina dela esango nuke. Gainera, ohartu naiz hemengo jendea oso kirolzalea eta mendizalea dela. Jende ugari egiten du kirola aisialdian, eta nik ere atsegin dut mendira joatea. Hiria faltan sumatzen dudan arren, asko atsegin dut mendia eta inguruko txokoak ezagutzea.

Jarraitzen al duzu Txileko aktualitatea?

Bai, egunero irakurtzen ditut hango berriak eta egunkari digitalak; ezin dut Txile egun batetik bestera ahaztu. Gainera, gustatzen zait han zer gertatzen ari den jakitea.

Zer ekarriko zenuke Txiletik hona?

Familia, zalantzarik gabe. Asko oroitzen naiz haiekin, eta asko sumatzen ditut faltan. Hango jatekoa ere ekarriko nuke [barrez]. Itzuliko naiz Txilera, baina oporretara edo hitzordu garrantzitsuetara. Ziur nago hemen biziko naizela, eta nire etorkizuna hemen dagoela. ■



Loratzea Parisen



ARGAZKIA ETA TESTUA: **HAIZEA SALEGI**

Hazi batetik, lore bat.
Zeinen erraza den hazia edota lorea ikustea,
baina non galtzen da bitarteko prozesu guztia?
Gu gara prozesuan galtzen garenak,
emaitzaren zain begiak estutu
eta gainerakoaren garrantzia
aho batez irensten dugulako.

Hazitik lorerako bitarte horretan
bizitza baten eboluzioa dago.
Aldapatsua izan daiteke, gogorra,
baina baita ederra eta atsegina ere.
Loratzeak dakar bizitzaren hasiera.

Horixe izan da Parisen ikusi dudana,
udaberriko eguzki eta hotzaren artean,
zuhaitz bateko loreen esnatzea. ■■■







LUIS GURRUTXAGA

Banda

Bai, musika bandaz, Azpeitiko Udal Musika Bandaz –hizki larriz–, arituko natzaizu oraingoan. 170 urtetik gora dituen bandaz. Nik uste dut gure herriko ondare immaterial gorenetakoa dela. Agian, gorenaz? Altxor immaterial bizia, hainbat gorabehera jasan-eta –nola ez hainbeste urtetan– guztiz osasuntsu eta kementsu irauten duena.

Banda eta ni. Haurtzarotik dut bandaren erreferentzia. Familian musikariak izanda, ume-umetatik present ditut oroimenak; esaterako, tio Pakorena, hamabi urtez bandako zuzendaria izan zen hura. Oso gogoan dut, anaia nagusiak uniforme jantziarekin zer itxura zuen. Lodikotea bera, Errusiako armada gorriko musikaria zirudien, buruko

borobil eta zapalarekin eta gorbata gorria soinean. Nik, ordea, inoiz ez nuen amestu bandakidea izango nintzenik. Baina... topikoetara joz, jubilatu bai... ez, ordea, erretiratu, eta, bada, musika eskolara joaten hasi nintzen, txikitan arrebarengandik jaso nuen solfeo apurrarekin eta anaiaren saxoa lagun hartuta. Betirako nire esker ona bandakide izateko jaso nuen aukeragatik. Aitortu behar dut hasierako entseguetan amildegi ertzean topatzen nintzela. Ulertzeko: kontu bat da txirrinduz bakarrik ibiltzea bide zabalean eta mantso, zeure erara. Beste kontua da ziztu bizian tropelera egokitzea. Eta noski, bandako dinamikak taldera moldatzea eskatzen du, bai ala bai. Piezak jotzeko unean, Maialenek albotik xuxurlatuz: "Luix, si

bemola!". Eta Borjak beste albotik isilka-misilka: "Hiii, xuabeago nota hoiyek, piano-piano!". Eta pieza bukatutakoan, zuzendari jaunak: "Luix, kortxeak motzago jo!". Eta ni, ostrukak imitatuz, ezkutatu nahirik, burua makurtuz atril atzean... kar, kar, kar. Pazientzia infinitoa hirea Unai eta... albokoena. Ezagun batek esan zidan entseguetara joaten hasi nintzenean: "Hi bandan? Gazteak bakarrik ibiltzen ez dituk ba...!".

Bi urte inguru hauetan, barrutik ikusi dut zer lan dagoen banda honen guztiaren atzean. Altuna zinegotzi ohiaren hitzek ongi asko islatzen dute 150 urte eta bandari buruz argitaratutako liburu mardulean. Besteak beste zera dio: "... ez dakigu zer

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Bidea

Plastikozko Risi ala larruzko Mikasa. Baloia, futboleko baloia zen txikitan nire lagunik onena. Laranja koloreko baloi handiagoak ez ninduen erakartzen. Ikusteko bai, jokatzeko ez. Hanketako talentu apurra agortu zenetik, baloi txikia begietatik sartu zait bihotzeraino. Txuri eta urdin. Kamiseta zuria, praka urdinak. Aupa Lagun. Pasioa. Garmendipe zen nire santutegia.

Pasioa energiaren parekoa da. Ez da sortzen, ez da desgaiten, eraldatu egiten da. Nire pasioa ere eraldatu egin da. Atxuiak piztu zuen su gartsua, su txiki gozo bihurtu den bitartean, baloi laranjaduna sartu da nire kaskezurrean. Oharkabea, bazter denetan otsoak ikusten ditut. Baloi laranjadunak nire biziorik handiena gauzatzea erraztu dit: kirolarien ondoan kirola bizitzea. Kirolaren miseriak eta pozak sentitzea. Oso epe laburrean denetarik dastatzea egokitu zait. Tituluak, igoerak eta garaipenak jaitsierekin eta porrotekin tartekatu dira. Kirola. Irabazi eta galdu. Azken bi urteak gogorrak izaten ari dira.

Urrearen borrokan, porrotaren beldur. Irabazi ala galdu, urre ala zilar, bidea da garrantzitsuena. Estalkia dena delakoa dela, bi uztai, baloi bat eta bost kankailu beste bosten aurka. Harmailak bete dira, giroa sortu da, eta otsokumeak, harro, otso nagusien bueltan. Hori da arrakasta. Hori da bidea. Neil lagunak esan zuen bezala, taldearen historian urrats txiki bat, aurrera ala atzera, klubaren ibilbidean jauzi handi bat. Hori bai, hankak beti lurrean, ez ilargian.

Postdata: Lleidan jokatu aurretik idatzita dago. Galdu ala irabazi, berdin balio du. ■■■

suposatzen duen horrelako banda izateak herrian, ezin dugu imajinatu zenbat ordu sartu behar dituzten, zuzendaritik hasita, musika eskolatik bandara iritsi den azken ikasle gaztea, ia ume arte...". Horregatik guztiagatik eta mila arrazoigatik, merezi du banda honen emanaldiez gozatzea, bai Sanagustinen, bai Soreasun ere. Agian, batzuei azken areto hori, erdigunetik "urrun" egiten zaie: Erdikaletik edo Elizkaletik baino, Frontoi Txikitik hurbilago daukazu Soreasura joateko. Besaulki erosoan eseri, aretoak eskaintzen duen soinu kalitateaz baliatu eta gozatu bandak eskainiko dizkizun era guztitako doinuak. Hemengo-hemengoak edo Karibeko kunbiak, betiko piezak edo moderno-modernoak.

Oholtzatik armailak estalita sumatzean, musikariari barne zirrara bikoiztu egiten zaio eta oldarkorrakoa sentitzen da.

Bandaren historian eta egun, ezin utzi aipatzeke herriko Juan Antxieta musika eskola; musikari berrien harrobi agortezina eta bandaren euskarria. Era berean, Azpeitiko Udala, ezinbesteko sostengua.

Eta bandakideok...: xumeki hartu ninduzuen, eta egun, zuei esker pribilegiatua sentitzen naiz. Betirako nire eskerrik hurbilena eta gorena, zuekin batera partaide izateagatik musikaren pasio eder honetan.

Friedrich Nietzsche poeta eta pentsalari famatuak haxe zioen: "Musikaririk gabe bizitza errorea izango litzateke". Beraz, gora musika, gora bandie, Azpeitikue! ■■■

EGURALDIARI ESKATZEN
DIODAN GALIZA BERBERA,
LIDA HURBILDU AHALA:
EZ DITZATELA
BAZTERRAK KISKALI

@garbincubeda

"Harrigarria da zer lorpen teknologiko den errota"

JOXIN AZKUE HISTORIALARIA

Gertuko ezagutza, norberaren herritik abiatutakoa, ezinbestekoa da Joxin Azkuerentzat. "Maitatzeko, lehenengo ezagutu egin behar da", dio, eta eskoletan herrietako mapak ikusi nahi lituzke. Ahalegin horretan hainbat lan egindakoa da, eta ez dauka gelditzeko asmorik.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Bizitzaren jira-birek gustuko lekuetara eraman dute nagusiki Joxin Azkue Gabilondo (Azpeitia, 1952), "Zizurkilgo azpeitiarra". Gipuzkoako Aiztondo bailarako herri horretan aurkitu zuen habia duela 42 urte. Ordurako aurkitua zuen harrezkero inoiz utzi ez duen historiaren bidea. Historiak eman zion lanbidea, baina lanetik haratago ere erruz garatu du antzinako aztarnak ezagutzeko, berreskuratzeko eta azaltzeko grina. Historiaren errota eta erroten historiak jaioterrira ekarri dute azkenaldian.

Zergatik aukeratu zenuen Historia?

Medikuntza egiten ari nintzen, bigarren urtea. Gaiztoak ginen eta, zigor batailo batera eraman ninduten [soldadutzara], Caceresera [Espainia]. Ia urte eta erdi egon nintzen han, eta denbora asko izan nuen neure buruari buelta batzuk emateko. Konturatu nintzen medikuntza ez zitzaidala gustatzen, eta historiaren mundu hori zela benetan gustatzen zitzaidana. Beraz, Medikuntza utzi eta Historian matrikulatu nintzen, Donostiako EUTGn. Karrerako azken bi urteetan ikasketak eta lana batera egin nituen. Oiarzungo Ikastolan [Gipuzkoa] lana eskaini zidaten, han hasi nintzen, eta gerora ere, era batera edo bestera, beti egon naiz lotuta Oiarzungo Ikastolari. Nire lan ibilbideko azken hogeitaz urteetan, 1990 ingurutik hasita, Ikastolen


Elkartearen inguruan sortu zen IKTen [Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia] talde batean ere aritu nintzen.

Gustuko lana izan al duzu?

Oso gustukoa, niretzat plazera zen. Gainera, sekula ez nituen bi egun berdina izaten. Oiarzunen ematen nituen eskoletan ere sekulako pagotxa nuen; klase gutxi batzuk ematen nituen astean zehar, neuk aukeratzen nituen horiek, eta oso gustura ematen nituen. Eta bitartean, herrian ere aritzen nintzen historiarekin lotutako kontuetan.

Zizurkilgo Hernandorena kultur elkarteko kide ere bazara, izan ere. Zein da talde horren xedea?

Elkartearen sortzaileetakoa eta kidea naiz, bai. Zizurkil herri txikia da, hiru mila biztanle ditu, baina denetarik egiten dugu. Niri azpimarratzea gustatzen zait Pedro Mari Otaño bertsolariaren inguruan egin ditugunak. Otaño zizurkildarra zen, eta Argentinan hil zen. 2010ean haren jaiotzaren ehungarren urteurrena izan zen. Argentina ezagutu nahi nuela aprobetxatuta, pare bat buelta egin nituen herrialde hartara, bide batez, ikerketa txiki bat egiteko. Otaño non zegoen hilobiratuta aurkitu genuen, eta haren familiarekin egoteko aukera izan genuen. Eta pentsa, gauzak nola diren, azkenean Otañoren familiak haren eskuizkribu guztiak eta dokumentazio osoa gure esku utzi zituen; gure elkarteak Koldo Mitxelena liburutegiarekin akordioa egin zuen, eta han daude jasota.





Loiolako Igara, kanpotik eta barrutik.

Azken hiru urteetan izan dugun proiektu nagusia, berriz, herriko muga eta mugarren ingurukoa izan da. Zizurkilgo udalari osoa muga-lerro osoa pasatu dugu. Lan horren ondorio izan dira 600 orrialdeko txosten bat, 150 bideo motz eta argazki mordo bat; denak ikusgai daude gure webgunean, hernandorena.eus. Horrez gain, gauza asko egin ditugu. Besteak beste, Zizurkilgo armarrria aldatu genuen. Eta hari horretatik etorri zen Erroten Egunaren bueltako lana ere.

Nondik eta nora, bada, errotena?

Zizurkilen bagenuen, eta badugu, martxan jartzeko asko falta ez zitzaion errota bat, oso polita, familiak zaindu izan duelako. Udalaren konplizitatearekin, auzolan bat egin genuen; errotari batzuk ekarri genituen, eta gure taldeko batzuekin batera, larunbatetan-eta elkartzuz, martxan jarri genuen Akezkoerrota. Duela urtebete izan zen hori, eta sekulako harrera izan zuen, herri guztia bueltaka ibili zen aurkeztu genuenean. Orduan, koinatuak, Luis Juaristik, esan zidan Azpeitian ere egin beharko genukeela herriko erroten inguruko zer bait; eta nik baietz, egingo genuela... joan den apirila arte. "Hi, gogoratzen haiz nola esan huen baietz, ezta?". Hortik etorri zen Azpeitiko egitea. Errota guztiak banan-banan bisitatu, dagoen dokumentazioa ikusi eta aztertu...

Gipuzkoako Erroten Egunaren bueltako ekintzen barruan, hitzaldia eman zenuen Sanagustinen. Han aipatu zenuen Azpeitian hogeitik gora errota edo errota izandakoen arrastoak daudela. Badira batzuk, ezta?

21 daude, guztira, zentsatuta. Hitzaldi horrek bi zati izan zituen. Batetik, errota bat zer den azaldu genuen. Jendeak ez daki zer den errota, eta harrituta gelditzen dira azaldutakoan. Alde batetik, harritu egiten nau harritzeak, baina normala da; mila gauza daude nik ez dakidana nola funtzionatzen duten. Bestetik, Azpeitiko errorei eta haien historiari buruz aritu ginen.

Errotak zer eta zertarako ziren?

Hasteko, dagoen asmakizun teknologiko ikaragarriena da errota. Ez dira egongo bi asmakizun teknologiko 800 urtetan aldatu beharrik izan ez dutenak, eta duela 800 urteko errotak eta gaurkoak igoyal-igoalak dira. Harrigarria da zer lorpen den errota, zer eraginkortasun duen. Ura biltzen da biltegi edo kanal batean; ur horrek gogor jotzen du turtuki esaten zaien burdinezko uztai batzuetan; urak jotakoan, horiek bueltaka jartzen dira eta ardatz bat goraka joaten da; ardatz hori harri bati lotuta



Joxin Azkue, Igaran.

"ZIZURKIL HERRI TXIKIA DA, HIRU MILA BIZTANLE DITU, BAINA DENETARIK EGITEN DUGU"

"JENDEAK EZ DAKI ZER DEN ERROTA, ETA HARRITUTA GELDITZEN DIRA AZALDUTAKOAN"

dago, eta harri hori ere biraka hasten da ardatza igotakoan; bi harri izaten dira, behekoa geldirik egoten da, goikoa da mugitzen dena; alea sartzen da horien artean, artoa edo garia; aleak birrinduta, irina sortzen da. Bi errotarri izaten dira errota guztietan, bata artoarentzat eta bestea gariarentzat.

Errotak baserriekin zeuden lotuta edo beste gune batzuetan ere bazeuden?

Normalean, jauntxo bati, baserri handiei edo herriari lotuta egoten ziren errotak. Garai batean ez zegoen ondasun higiezinaren edo ibilgailuen gaineko zein egun udalek ezartzen dituzten bestelako zergarik. Herriak, ondasun propioak eta mantenimendurako dirua izateko, bentak eta errotak izaten zituen, oso ohikoa izaten zen hori. Horiek alokatuz, dirua ateratzen zuten herriek; beraz, jendea derrigortuta zegoen leku horietara

joatera, beren uztako aleak irintzera. Dena den, jauntxoek ere izaten zituzten errotak, eta baserri handi batzuek ere bai, baina gutxiago ziren azken horiek; adibidez, Toberagileko errota antxietarra zen. Artoa edota garia irintzera eramaten zuten baserritarrek laka bat (ehuneko hamarra) ordaintzen zioten errotariari. Horrela funtzionatzen zuten errotek. Garai hartako fabrikak ziren errotak, industria bakarrenetakoa.

Errotak eta olak toki bera al ziren edo lotuta al daude?

Asko daude lotuta, eta adibidez, Toberagilen ikusten da oso ondo lotura hori. Burdinolak izan ziren hemengo industria nagusiak, XVI-XVII. mendeetan industria handi samarrak hasi ziren arte. Burdinolak desagertzen joan ziren, industria berriekin ezin lehiatuta, eta haietako asko irin errota bihurtu ziren. Beste batzuk errota sortu ziren, baina tipikoa zen oso burdinola izandakoak errota bilakatzea. XX. mendearen hasieran, berri, irin fabrikak hasi ziren, Azpeitian Goikoerrota, adibidez, eta orduan errotak joan ziren beren eraginkortasuna galtzen, ezin zuten irin fabrikekin lehiatu. Baina orduan fenomeno bitxi bat hasi zen, baserrien elektrifikazioa, eta errota gehienak zentral elektriko txiki bihurtu ziren; bakoitzak bere etxerako eta inguruko 20-30 baserrirentzako argindarra sortzen zuen. 1950 aldera arte, batzuetan 1960raino, funtzionatu zuten horiek, argindarraren sarea landagune gehienetara iristen hasi zen arte. Elektrifikazioa orokortu zenean, errotek ez zuten inongo zentzurik, eta galdu egin ziren.

Hala ere, Azpeitiko udalerrian badira bi, Toberagile eta Igara, egun martxan daudenak?

Bi horiek martxan, bai, eta badira martxan jarri ahal izateko nahiko ondo kontserbatuta dauden beste bi edo hiru ere: Gaztekoa, esaterako.

Azpeitian dokumentatuta dauden gainerako erroten aztarnak zertan dira?

Horietatik gehienek, gaur egun, etxe aurrean daukate errotarriarekin mahaia eginda edo dekoraziorako dauzkate errotarenak izandako elementuak... horrelako gauzak. Etxe zaharrak ziren tokietan etxe berriak eginda ere badaude, eta ondorioz, galtzen joan dira.

Urrestillako Katuerrota baserria bota zutenean, errota bera matendu egin zuten. Udalak erosi al zuen?

Hori udalarena da, bai. Eskatu genuen baimena barruan ibiltzeko, eta ez ziguten utzi, tokia oso gaizki dagoelako. Komeniko litzateke hor zerbait egitea, errota bera nahiko ondo dagoela baitiote bertakoek.



Toberagile edo Igarakoaren antzera, Gipuzkoan errota asko al daude martxan?

Bai, mordoska bat daude. XIX. mendearen hasieran igoa mila errota egongo ziren Gipuzkoan, eta orain 50 bat baldin badaude, ikaragarria da; baina 950 galdu egin direla esan nahi du horrek, sasipeco ahanzturan.

Martxan gelditzen direnak edo irauten duten aztarnak ondo zainduta al daude? Hobeto zaintzea komeniko al litzateke?

Etnografiaren munduan beti gertatzen da gauza bera. Zuk etxe zahar bat badaukazu, XVI. mendekoa edo, zaila da esatea ona den ala desgrazia bat den. Mantentzeko laguntzarik ez dago apenas, eta ezin duzu etxe horretan ezer egin, ezin duzu etxea zeuk nahi duzun erara manipulatu edo eraldatu, eta edozer obra ikaragarri garestitzen da. Beraz, udalak hartzen ez baditu, Igarakoaren gisa, zaila iruditzen zait mantentzea. Toberagilekoek, adibidez, joaten zaien jende guztia onartzen dute, beso zabalik hartzen dituzte; gu hara joan ginenean, esaterako, kanala propio bete eta errota martxan jarri zuten, eskertu besterik ez daukat. Baina, noski, berentzako egundoko lana da errota martxan mantentzea. Horregatik, esan nien Zizurkilen

formula bat erabili izan dugula. Duela urte pare bat, karobi bat berritu genuen, lehengo erara jartzeko. Baserritar batena zen, eta akordio bat egin genuen harekin: karobia ikustera joan nahi zuen jende guztiarentzat bidea libre egongo zen, baina urtean behin-edo udala arduratuko zen bide hori txukuntzeaz. Toberagilen ere egin daiteke horrelako zerbait, udala urtean behin kanala garbitzeaz arduratuko balitz, esaterako. Hitz egitekotan gelditu ziren.

Zergatik da garrantzitsua gelditzen diren errota horiek eta aztarnak kontserbatzea?

Altxorak direlako, eta jendeak horiek ezagutzeko aukera izan dezan. Ezagutzen ez dena ez da maitatzen, eta maitatzeko, lehenengo ezagutu egin behar da. Horregatik, uste dut eskoletan ere lan gehiago egin beharko litzatekeela horrelako edukiekin; ez bakarrik errotekin, ondare guztiarekin. Askotan iruditzen zait eskolaumeek ezin hobeki dakitela Vietnamgo hiriburua zein den, eta gero, herria ez dutela ezagutzen. Zenbat aldiz gertatu zaidan, eskola batera joan, gela batean sartu, eta han Euskal Herriko mapa, zoragarria, handia. "Eta herriko mapa non dago?" galdetu, eta "nola, herriko mapa?". Noski baietz. Euskal Herriko maparen aldamenean,

"AZPEITIAN BADIRA MARTXAN JARTZEKO NAHIKO ONDO DAUDEN BESTE BI EDO HIRU ERROTA"

"EUSKAL HERRIKOAREN SILUETA BEZALA MEMORIZATU BEHARKO GENUKE HERRIKO MAPARENA"

herriko mapak beharko luke egon; Euskal Herriko maparen silueta memorizatuta daukagun bezala, herrikoa memorizatu beharko genuke. Zizurkilen hiru eskola ditugu, eta Hernandorenakoak hirueta joaten gara, gutxienez bakoitzera urtean behin, ikasleekin herrian ibilaldi txiki bat egiteko, normalean gurasoei joango ez liratekeen lekuetara: presak, karobiak, paisaiak... Ezagutzeko bidea hori da.

Klima eta energia krisien testuinguru honetan, ikasgairik bat atera al daiteke garai bateko errota haiek?

Ikasleekin eta gazteekin errotetara joan eta energia alternatiba batzuk badaudela, horietaz gehiago pentsatu eta horiek gehiago aprobetxatu beharko genituzkeela erakusteko baliagarriak izan daitezke. Dena den, kontuan hartu behar da erroten aprobetxamendua oso txikia dela, gaur egun norberaren etxean eguzki plakak jartzearen parekoa. Baina nik uste dut bereziki sinbolikoki direla garrantzitsuak errotak. Gure ondarea dira, gure herriko historia dira, historia ikaragarria. XVII. mendean Euskal Herrian artoa sartu zen arte, baserriak irauteko besterik ez zeuden, gosea besterik ez zegoen, eta denak maizterrek ziren. Artoarekin, kolpetik, ekoizpena hirukoiztu edo laukoiztu egin zen, eta gainera, garitarako erabili ezin ziren hirugarren eta laugarren mailako lurak erabilgarri bihurtu ziren. Horrek ekarri zuen baserrietan sarrerak asko handitzea, eta maizterrei alokatutakoak zirenez, jauntxoek erdibitu egin zituzten baserri asko, maizter bat jarri beharrean bi jarri ahal izateko eta etekinak ere bikoizteko; eta baserri berriak sortu ere bai. Orain dauden bi bizitzako baserri guzti-guztiak garai hartan erdibitutakoak dira. XIX. mende

erdialdean, Azpeitian 450 bat baserri zeuden, eta baserrien jabe zirenak eta bertan lan egiten zutenak, berriz, 50 bat ziren; gainontzeko denak jauntxoren batenak ziren: Granadako dukea, Narroko markesa, Lasako sanmillandarrak...

Azken pare bat hilabetetan Azpeitiko erroten historian murgilduta ibili ondoren, beste proiekturik ba al duzu esku artean?

Duela 30 bat urte, lau edo bost inozente elkartu ginen, eta Larramendi Bazkuna izeneko elkarteak sortu genuen, Andoain eta Aiztondo bailara hartuta. *Aiurri* aldizkaria sortu genuen, eta hainbeste urte eta gero, hango zuzendaritza batzordean jarraitzen dut. Tolosaldeko Euskara Mahaiaren zuzendaritza batzordean ere banabil, proiektu oso polita eta aitzindaria. Ez naiz aspertzen, egunero daukat zerbait. Emazteak esaten dit lanean nenbilenean baino askoz gutxiago ikusten nauela jubilatuta nintzenetik. Gustatzen zait horrelako proiektuetan parte hartzea, bete egiten nau.

Azpeitira ere sarri etortzen zara, ezta?

Askok bai. Gauzak nola izaten diren... Duela 35-40 urte inguru afari bat egin genuen eskola garaiko ume txikiak ginenok. 20-25 lagun elkartu ginen afari hartan, txiki-txikitako lagunak, eta primeran pasatu genuen. Hurrengo hilean berriz egiteko gelditu ginen; eta hurrengo hilean, eta hurrengoan, eta hurrengoan... 35 urte daramatzagu hilero-hilero egiten. Txoko soziedadean elkartzen gara, hileko lehen ostiralero, afaria txandaka prestatzen dugu eta bakoitzak badaki noiz tokatzen zaion. Horrez gain ere asko etortzen naiz, lagun batzuekin eta besteekin egoteko, eta familia ere Azpeitian daukat. Askok etortzen naiz Azpeitira, nire herria eta gustuko tokiak da. ■■■

Eoliko anonimoak



IMANOL AMIANO

Gaztetxoa nintzenean, kiniela egiten genuen garai haietan –oraindik ere egiten omen da–, At. Osasuna-Barcelona (1), Real Madrid-At. Madrid (X) –ezin ba biek galdu– eta At. Bilbao-Real Sociedad (2) moduko neurketekin batera, karratutxo gorri haien artean, hamalauko zerrenda hartako amaierakoetan Levante-Las Palmas –orduan bai igotzen genituela eskuak– eta antzekoen artean, bazen talde bat "Avilés Ind." izenekoa. Nik, naturaltasun osoz eta inongo zalantzarik egin gabe, "Avilés Independiente" zela uste nuen; bada ez, Avilés Industrial zen; ez ziren Xixon eta Uvieutik banandu eta burujabetza aldarrikatzen zuten asturiarrak, 80ko hamarkada urrun hartan gertatuko zen industria-birmoldaketa bortitz eta traumatikoari aurre hartu eta izena aldatu nien arren... Beno, kontua da zerrendetan, kinielakoetan ez, hauteskundeetakoetan, "Ind." hori bera ikusi dudala izen batzuen ostean, baina uste dut oraingo honetan behar bezalako irakurketa egin dudala.

Hamabosteko *pleno*a ez, zinegotzien hamazazpikoa asmatu behar izaten da herrian; aukeran, dominazio burgesa ala klase ertaineko sozialdemokrata asimilatuak; intxaur-biltzaileak ala ignominiaren apostoluak; "Aurrera, batera!" edo "Maite duzun Azpeitia"; ez 1, ez 2 espainiar zintzoentzat, ez eta iPhonedun komunistentzat ere; madrildarren derbian bezala, X; ezin biek galdu. Kiniela garaiotan, zerrendetako independente-industrialek izan zezaketen tiradizoak adinako eragina izango genuen eoliko anonimook emaitzetan: isilean gordeta, haize-errotan aurkako kixoteek gure piaspekotasunaren berri izan ez zezaten, edo, beharbada, alderantziz, haizea sañutik sartzen dutenek ez jakiteko ez dugula iberdrogarik nahi.

Ez dira nolana hikoak izan azken lau urte koarrogatu

**EZ DIRA
NOLANAHIKOAK IZAN
AZKEN LAU URTE
KOARROGATU
PANDEMIKO HAUEK**

pandemiko hauek, eta datozen eoliko fotovoltaiakoek ere itxura berekoak dirudite. Nuklearrik ez, eskerrik asko, gasa eta petrolio ama ituko dira eta berriztagarriak geratzen zaizkigu. Zer egin? Eguzkia nahi guk hemen, baina haizeak putz. Erraldoiak dira, Sancho lagun hori, bai, eta adingabeen zentroak, espetxeak, atez atekoa edota zaborteak bezala, ez ditugu nahi gurean. Guk sortutako teknologia-hondakinez egindako mendiak bezala, urruti, Somalian edo Etiopian, edo auskalo non. Baina urruti. Bada oraingoan ez gara libratuko. Capital Energyren eredu edo Starkraftena izango da, petronor baino nor, baina errotak eraiki, eraikiko direlakoan nago.

"Zer gara gu? Nor gara gu?" dio abestiak; koarrogatu pandemiko, esklabu campervanero, iberdrogazale norvegiar, espainiar zintzo edo eoliko anonimo gara gu, besteak beste. Eta ez dugu erremediorik. Ospatu garaipena, irentsi porrota edo, besterik gabe, ondo pasatu Xanjuandeiko festetan, azpeitiar! ■■■



Mila esker zuen babesagatik

ehbildu

Azpeitiarren alde
lanean jarraituko dugu

EBINGO DUGU.

Lizentzia
eta obraren
hasiera
2023ko
Udan

200.000 € -TIK AURRERA
(BEZIK GABE)

**Inork ez dizu
gehiago emango**

- Igerilekua, lorategia eta txokoa duen urbanizazio pribatua.
- 2 edo 3 logelako etxebizitzak eta solariuma duten atikoak.
- Terraza zabalak etxebizitza guztietan, bista irekiak.

**GUZTIZ HORNITUTAKO SUKALDEAK
ARMAIRUAK LOGELA GUZTietan
BEROGAILUA, ZORU ERRADIATZALE BIDEZ**

www.izarjai.com

1zarJai
Izarjai - Karrika - Ibarra

grupo eibar
inmobiliaria

**AZKOITIKO GRUPO EIBAR-EN
BULEGOA**
Julio Urquijo Etorbidea 30

618 614 541
comercial@grupoeibar.com
www.grupoeibar.com

Izena izen, "geurea"

Testua: **Erredakzioa**. Argazkiak: **Uztarria**.

Bertakoa eta plurala, eragileen eta herritarren bozgorailua, eta euskararen aterpea. Horrela defini daiteke euskarazko tokiko komunikabide bat. Horrela defini daiteke UZTARRIA. Herritarren eta herriko gertaera garrantzitsuen berri eman du sorreratik, eta hain garrantzitsutzat jo ohi ez diren beste hamaika istorio handi eta txiki ere kontatu ditu tokitik bertatik. Herria, komunitatea, izan du iturria, eta han edandakotik osatu ditu hitza eta irudia.

Gertaerak eta istorioak daude alde batean; bestaldean, bazkideak, irakurleak, erabiltzaileak, eragileak. Toki hedabide batek behar-beharrezkoak ditu horiek guztiak, eta herritarrek, eragileek nahiz euskararen arnasmune den herriak ere funtsezkoa dute UZTARRIA euskarazko herri komunikabidea. Hori dutelako euskarri beren lana, iritziak zein salaketak plazaratzeko, nahiz informatuta egoteko.

"Konfiantza eta ziurtasuna"

Tokiko komunikabideek zer-nolako garrantzia duten argi daukate, esaterako, Mari Jose Bikendik eta Nekane Zelaia. Juan Antxieta musika eskolaren zuzendaria da Bikendi; Uztarriako bazkidea da, berriz, Zelaia, arkitektoa eta administraria.

Herriko informazioa jasotzeko "atari garrantzitsua eta baliagarria" da Uztarria Bikendiren esanetan, eta musika eskolarentzako, informazioa zabaltzeko ahal izateko "ezinbesteko" erreminta da: "Gure inguruko informazioa zabaltzeko sare sozialak ere baditugu, baina oso garrantzitsua da UZTARRIAN eragileon gaineko

informazioa ematea, herrian bertan asko ikusten eta irakurtzen delako".

Herrian tokiko hedabide bat izatea garrantzitsua da Bikendiren zein Zelaiaren ustez; gertutasunak "konfiantza eta ziurtasuna" eskaintzen dituela adierazi du Bikendik:

"Egunean egunekoaren berri izateko aukera ematen du UZTARRIAk. Herrian zerbait gertatu denean, hala dela kontrastatzeko eta ziurtatzeko aukera ematen du hedabideak. Albisteak bertatik bertara landuta, ziurtasuna eta konfiantza eskaintzen ditu". Horretan bat dator Zelaia:

"Webguneak bertako informazioa eta pil-pilean dagoenaren berri izateko aukera eskaintzen du. Gainera, inguruan ere asko komentatzen da Uztarrian bat ala bestea azaldu dela; denek irakurtzen duten seinale. Aldizkariak, berriz, gertukoa izaten segitzen du, baina beste patxada batekin irakurtzeko aukera ematen du".

UZTARRIAk badu berezitasunik musika eskolaren zuzendariaren arabera: "Berezia da geurea delako, oso gertukoa eta irakurterraza". Informazioa euskaraz jasotzea ezinbestekoa da Zelaiaren ustez: "Une oro euskaraz bizi baldin bagara, ezinbestekoa da herriko hedabidea edota iritsiko zaigun informazio hori geure hizkuntzan izatea ere".

Urteetako lanaren poderioz egin du toki hori UZTARRIAk azpeitiarren egunerokoan, urratsez urrats, talde lanean eta batzearen indarrean sinetsiz; horregatik, etorkizuna GUKA proiektuaren atarikiplean ikusten du UZTARRIAk, funtsari eusteko: bertakoa eta plurala izatea, eragileen eta herritarren bozgorailua, eta euskararen sustapenean eragingo duena. ■



Mari Jose Bikendi

**"ALBISTEAK BERTATIK
BERTARA LANDUTA,
ZIURTASUNA ETA
KONFIANTZA
ESKAITZEN DITU"**



Nekane Zelaia

**"EUSKARAZ BIZI
BAGARA, HERRIKO
INFORMAZIOA GEURE
HIZKUNTZAN IZATEA
EZINBESTEKOA DA"**

INAR OPTIKA-AUDIOⁿ, seme-alaben miopia tratatzeko modu adimentsua.

OMEren (Osasunaren Mundu Erakundea) arabera, gaur egun munduko populazioaren %22,9 miopea da, eta 2050. urterako populazioaren %50 miopea izatea espero da, osasun publikoaren arazorik handienetakoa bilakatuz.

Miopea izateak ez du esan nahi betaurrekoak edo lentillak eraman behar dituztenik bakarrik. Miopeek begietako gaixotasunak izateko arrisku handiagoa dute, eta horiek garaiz tratatzen ez badira, ondorio itzulezinak izan ditzakete.

Gero eta denbora gehiago pasatzen dugu barruetan, eta gero eta gehiago abusatzen dugu

gailu digitalez adin goiztiarretan. Haurren bizimoduaren aldaketa ikusita, konfiantzazko ikusmen profesionalarekin aldizkako hitzorduak hitzartu behar ditugu, eta ahalik eta azkarren tratamendua ipini.

Orain Inar Optika-Audio-n gailu berezi bat dugu: biometroa. Gailu horren bidez, haur batek miopia izateko duen probabilitatea aurreikusi daiteke, eta sei hilabetetik behin duen bilakaera aztertu, lehenbailehen tratamendu egokia jartzeko.



Zer tratamendu daude?

Miopia tasaren igoeraren aurrean, MiYOSMART lente oftalmikoak, lentila mota desberdinak eta ortokeratologia bezalako irtenbideak sortu dira. Tratamendu ez-inbaditzaileak dira, seguruak eta eraginkortasun handikoak, ikerketa klinikoa zorrotzetan adierazi bezala.

Ba al zenekien seme-alaben miopia kudeatzeko neurririk errazenetakoa eta eskuragarrienetakoa egunez aire zabaleko jarduerak egitea dela? Kanpoan egunero denbora pasatzeak eragin babeslea du miopiaren sorreran, beraz, haurrek egunean, gutxienez, bi ordu igaro behar dituzte kanpoaldean, ahal dela eguzkiaren argipean; testuak eta objektuak gutxienez 30 zentimetro urrundu behar dituzte; gailu digitalen erabilera mugatu behar dute; eta atsedenaldiak egin behar dituzte gertura jarduerara luzea egiten dutenean.

INAR OPTIKA-AUDIO MiYOSMART zentro akreditatua gara. Hori dela eta, HOYA Vision Care eta Inar optika-audiok, gure seme-alaben babesla eta ikusmen-kalitatea gogoan izanik, lente txuri, fotokromatikoak eta polarizatuak ditu, D.I.M.S teknologiari esker miopiaren progresioa moteltzen dutenak. Aldi berean, babes osoa ematen dute UV-A eta B-aren aurrean.

Zure seme-alabak miopia badu edo miopia izan dezakeela uste baduzu, zatoz INAR OPTIKA-AUDIOra eta tratamendu iraultzailearen berri emango dizugu. ■





MiYOSMART

HOYA
FOR THE VISIONARIES

60%

murritzten du
miopiaren
garapena

MiYOSMART. Miopiaren zaintza, haurrei eta nerabeei zuzenduta.

Ezerk ez dezala aurrera egitea oztopatu;
mantso zu zure miopiaren garapena.

MiYOSMART haurrentzako zentroa gara. Eska lezaguzu informazioa inar optika audioan.

 INAR
— OPTIKA—AUDIO —

Jose Artetxe Kalea, 10
20730 Azpeitia, Gipuzkoa.
Tel.: 943-03 89 49



SAREGILE BERRIEN AMARAUNA

Julen Portillo eta Nerea Rodriguez
EDUKI SORTZAILEAK

Gizartea eraldatzen ari den honetan, ogibide batzuek indarra galdu dute, baina berriak ere sortu dira. Azken hamarkadako saregile berriak bilakatu dira eduki sortzaileak. Julen Portillo eta Nerea Rodriguez zaraiztarak dira horietako bi: euskal TikTokerra da lehena; komunikazio politikoan aditua bigarrena.

Testua: **Andrea Zipitria**. Argazkiak: **Urtzi Oteiza**.



Zarauztarrak dira biak ala biak, eta badute beste zerbait ere komunean: eduki sortzaileak dira. Julen Portillo (1994) euskal tiktokerra da, eta Nerea Rodríguez (1978) komunikazio politikoan aditua. Rodríguezek hainbat entitaterean sare sozialak kudeatzen ditu gaur egun, hori du momentu honetan ogibide. Portillo, berriz, denbora librean ibiltzen da TikTokera edukiak sortzen; diru sarrerak lortzen dituen arren, ezin du horretaz bizi.

Zer esan nahi du sare sozialetako eduki sortzailea izateak? Nolakoa da zuen eguneroko bizimodua?

J.P.: Ez dakit nondik hasi definitzen. Oso zaila egiten zait. Azkenean, noiztik aurrera zara eduki sortzailea? Edukia sareetara igotzen duen pertsona bezala definitzen dut nik nire burua; hau da, edukiak igotzen

dituen beste edozein bezala. Nire egunerokotasuna zera da: lanera joan, zortzi ordu bete eta denbora librean bideoak igo. Eta noski, disfrutatu.

N.R.: Nire kasua ezberdina da. Julenek bere sare sozialetan partekatzen ditu egiten dituen edukiak, baina nik beste pertsona batzuentzat egiten ditut edukiak. Eduki horiek askoz ere planifikatuagoak direla esango nuke, eta baliabideak ere, agian, ezberdinak dira. Nik eduki sortzailea komunikatzeko beste bide bat bezala definituko nuke; eduki sortzailea da sareetan edukiak sortzen dituen.

Bi ikuspuntu ezberdin azaldu dituzue. Zuen iritziz zein da zuen jardunaren alderik onena eta txarrena?

J.P.: Txarrena, jendeak zutaz barre egitea. Azken aldian, hori pertsonalki asko ari zait eragiten. Baina alde onak ere baditu. Positiboena herritarrei nire edukiak gustatzea dela esango nuke.

N.R.: Egunero abentura berri bat dagoela martxan da niretzat positiboena edo behintzat gehien gustatzen zaidana. Leku ezberdin asko ezagutzeko aukera ematen du ogibide honek, eta esango nuke alderdi emozionala ere baduela, ikuspegi positibotik begiratura. Okerrena, berriz, eduki bat egin eta ez funtzionatzea da nire iritziz. Adibidez, igotako edukia jende gutxik ikusten duen kasua aipatuko nuke. Hori bai, alde positiboak negatiboak baino gehiago dira nire ustez.

Nolabait esateko, besteen menpe ere bazaude. Batzuk saiatzen dira, baina arrakasta ez dute guztiek lortzen: zein da arrakasta lortzeko sekretua?

N.R.: Niri interesatzen zait eduki batek zer-nolako erantzuna edota babesa duen jakitea, hori izaten baita askotan lana ondo egin duzun seinalea. Dena den, ez da beti horrela izaten. Garrantzitsuena beti koherentzia mantentzea da, lan fina eta ona egitea. Izan ere, arrakasta ez dago hain nire esku. Profesionala ere izan behar duzu, eta ezinezkoa da, esaterako, bideo bat gaueko ordu txikitan igotzea. Ziur nago zuk ere kontuan hartzen duzun zerbait dela hori, Julen. Horrenbestez, egindako lan batekin gustura geratzea da arrakasta.

J.P.: Nereak esandakoa azpimarratu nahiko nuke. Askotan, sareetara igo aurretik, eduki batek arrakasta izango duela uste duzu, baina ez da hala izaten beti. Ni euskarazko edukia egiteko helburuarekin hasi nintzen egiteko honetan. Egun batean 50.000 ikustaldi izaten ditu bideo batek, eta hurrengoan, berriz, mila ikustaldi beste batek.

Edukiek arrakastarik izaten ez dutenean, eragiten al du zuengan?

N.R.: Harrotasun puntu horretatik, gure bihotzean eragiten duela esango nuke. Kontua da *influencer* handien kasuan askoz ere handiagoa dela eragina. Guk ez ditugu *influencer* horiek dituzten bezalako helburuak.

J.P.: Halako helburuak noski ez ditugula, baina arrakasta ezak badu eragina nigan. Orain ez hainbeste, baina izan ditut oso onak izan ez diren hilabete batzuk. Guztia begiratzetik ibiltzen nintzen: jarraitzaileak galtzen nituen ala ez... Nire osasun mentalari kalte egiten ari nintzela ohartu nintzen momentu bat iritsi zen, eta hori makro *influencer* horiekin alderatuta, ez naizela inor. Ez dut imajinatu ere egin nahi nola eragingo dien arrakastak haiei.

N.R.: Makro *influencer*-ak metriken oso esklabo dira.

Influencer-en gaia jarri duzue mahai gainean. Gaur egun, gazte askok esaten dute handitan influencer izan nahi dutela. Askok, gainera, halako pertsonaiak dituzte idolotzat. Erraza al da sare sozialetako jardun horretatik bizitzea?

N.R.: Saiatuta ez duzu lortuko inoiz *influencer*-a izatea; berezko zerbait eduki behar duzu. Gaur egun, hainbeste profilekin zaila da zurea zerbaitetik bereiztea. Zerbait ezberdina eskaini behar duzu edo bideo batek oso ongi funtzionatu behar du makro *influencer* bilakatzeko. Gainera, marka asko mikro *influencer*-ekin hasi dira lanean. Gazteei esango nieke ez pentsatzeko izugarriko *influencer*-a izatearekin; izan zaitezte zuen kaleko edota auzoko *influencer*-ak.

J.P.: Bideo bat birala egitea ez da hain zaila gaur egun. TikTok ikustaldi asko izaten dituzte bideoek, baina behin ikustaldi asko lortuta, zaila da horretan mantentzea. Ez da hain zaila lehenengo bideoan originala izatea, baina asko egin behar baldin badituzu... Hor dago koska.



"Instagram da nire sare sozialik gustukoena; baina Youtube kontsumitzen dut gehien"

"Youtuben kanal garrantzitsu bat nuen, baina bideo guztiak borratu ditut"

"Gazteengan eragin handia dute sare sozialek, eta hori eskoletatik ondo landu beharreko zerbait da."

Nerea Rodriguez

N.R.: Horri jarraiki, gaur egun dena ikusita dagoela gehituko nuke. Askotan, eduki txar asko saltzen dituzte, eta ildo horretatik ezin da tira.

Noiz ireki zenuen TikTokeko kontua, Julen?

J.P.: Pandemia hasi berria zela sortu nuen kontua, isilpean gainera. Hasieran lotsa ematen zidan TikToka nuela esateak, baina gero ikusi nuen herritarrei asko gustatzen zitzaizela, eta lasai hasi nintzen esaten. Gainera, lehen hala uste nuen eta orain ere bai, iruditzen zait sare sozial guztietan onena dela TikTok. Gaur egun, 9.000 jarraitzaile pasatxo ditut, eta edukiak euskaraz egiteko, ez dago batere gaizki.

Eduki guztiak euskaraz egiten dituzu. Zergatik?

J.P.: Hautu politikoa da, nire hizkuntza delako euskara. Askotan ematen du euskaraz ezin dela regetoia egin, ezin dela umorea egin... Baina euskal kultura ez da trikitia, bertsoak eta esku pilota bakarrik. Falta da euskarazko prentsa arrosa, adibidez. Falta da dena gure hizkuntzan egitea. Zergatik euskaraz? Galdera horri beste galdera batekin erantzungo nioke: zergatik ez?

Inoiz sentitu al duzu beste hizkuntza batean aritzeko beharrik?

J.P.: Ez. Orain dela gutxi ETB2ko *Akelarre* saiotik deitu zidaten, bideo laburpen bat egiteko esanez. Oso ondo iruditu zitzaidan proposamena, baina baldintza bakarra jarri nien: euskaraz egingo nuela. Zertarako egingo dut gaztelaniaz? Nire audientzia euskalduna da, eta sortzen dudana edukia haientzako da.

Sare sozial asko daude, baina zeinetan sentitzen zarete erosoen?

J.P.: Nik esan dut... [barrez].

N.R.: Nire sare sozialik gustukoena Instagram dela esango nuke. Hala ere, Youtubek txoko handi bat du nire bihotzean. Izan ere, bere garaian, Youtuben banuen kontu bat, jarraitzaile askorekin; oso ondo funtzionatzen zuen. Orain, bideo guztiak borratu egin ditut, txorakeria dezente egiten nituen-eta garai hartan. Gaur egun ere, Youtube Instagram baino gehiago erabiltzen dut. Dena den, lanean gehien erabiltzen dudana sare soziala da Instagram.

Zergatik utzi duzu alde batera Youtubeko kanala?

N.R.: Momentu batean egiten dituzu gauzak gustura, baina urte batzuk pasatu ondoren ez zara hainbeste identifikatzen pertsona horrekin. Izan ere, denok joaten gara garatzen eta aldatzen. Youtubeko kanalean banituen, esaterako, ile beltzarekin agertzen nintzen bideo batzuk, eta urte asko dira jada ez dudala nire burua ile beltzarekin ondo ikusten. Orduan askoz ere gazteagoa nintzen, eta ez nuen umerik; gaur egun beste pertsona bat naiz. Horregatik ezabatu nuen kanala. Garai berriak dira, eta edukia ere aldatu egin behar da. Lehen esan dudan bezala, orain Instagram erabiltzen dut batik bat, eta gehienbat lanerako, gainera; nireak ez diren beste profil batzuk kudeatzen ditut. Instagrameko kontu pertsonalari dagokionez, orain dela urte batzuk Telecincon aritu nintzen lanean, eta ordu-tik jarraitzaile asko ditut, baina argazki bakarra daukat igota. Momentuz kontua mantendu egin nahi dut. Agian, egunen batean hasiko naiz edukiak-eta igotzen.

Nerea, komunikazio politikoan aditua zaren aldetik, gomendiorik emango al zenioke Juleni?

N.R.: Bere marka euskara bada, horri eusteko esango nioke. Gaur egun oso zaila da besteen-gandik desberdintzea, eta marketin eta komunikazio arloetan aritzen garenok garrantzi handia ematen diogu markari.

Hizkuntza aipatu duzunez, zu, Nerea, gehiago aritu zara erdal munduarekin harremanetan...

N.R.: Bai, hala da. Nire ama hizkuntza gaztelania da, nahiz eta euskara ondo menperatu eta euskara erabili kalean zein lanean. Zerbait naturala izan behar duenez, sare sozialetan gaztelera hitz egitea ateratzen zait niri. Azken finean, bizitza errealean duzun egunerokoaren isla izan behar du sare sozialetan jartzen duzunak, ezin duzu artifiziale izan sareetan.

J.P.: Ñabardura bat egin nahiko nuke horren inguruan. Herritar askok pentsatzen dute nire ama hizkuntza euskara izan dela betidanik, baina ez da hala. Nire familian bi kide soilik gara euskaldunak: anaia eta biok. Gurasoak extremadurarrak dira, eta nik etxean gaztelera



"Zertarako egingo dut gaztelaniaz? nire audientzia euskalduna da, eta haientzat sortzen dut edukia"

"Duela hilabete batzuk psikologoan hasi naiz; sare sozialetako gauzak niregan eragina zutela ikusita"

"TikToketik diru-sarrerak baditut, baina gaur egun zaila da horretaz bizitzea"

Julen Portillo



hitz egiten dut, baina erosoago sentitzen naiz euskarazko edukia sortzen.

Irudiaren gaia aipatu duzue. Sare sozialetan ikusten den guztia ez dela erreala esan ohi da. Zer iritzi duzue horri buruz?

N.R.: Bi joera daude. *Influencer*-ek igotzen dituzten irudiak marketinari oso lotuta egoten dira, eta zentzu horretan, ez dute hainbesteko askatasunik izaten beraiek nahi dutena egiteko. Nik ez ditut inoiz marka handiak atzetik izan, eta halakoetan, naturalago izaten dira kontuak. Ez zara iragarki bat, pertsona bat baizik.

J.P.: Sare sozialetako Julen ez da pertsonaia bat, baina kalean baino gehiago esajeratzen dut. Askok uste dute txisteak egiten pasatzen dudala eguna, baina ez da horrela. Ni, berez, pertsona lasaia eta lotsatia naiz. Herritar askok ez dakite bizitza erreala eta sare sozialetakoa desberdintzen.

Markaren batek jo al du zuengana publizitatea egiteko eskatuz?

N.R.: Bai, baina markak baino gehiago agentziak dira guztiaren atzean daudenak. Agentziek nolabait marka ezberdinekin kolaboratzen dute, eta *influencer* jakin batzuekin hitzartuta edukitzen dute kontratua. Azkenean, negozioa da hori ere. Garai batean, agentzia batekin egin nuen lan, baina oso gutxi iraun nuen; hilabete bat, gutxi gorabehera. Ez dut horretarako balio.

J.P.: Markekin ez dut lan egin, baina izan ditut diru sarrerak, gehienbat, Eusko Jaurlaritzaren edota Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik. Izan ere, euskara sustatzeko hainbat egitasmo egiten dituzte horiek. Duela bi urte, nire produkzio bat alde batera utzi behar izan nuen, sareetan soilik jarduteko. Urte eta erdiz eutsi nion jardun hari, baina ikusi nuen ezin nuela bizitza harekin jarraitu. Oraindik ere izaten ditut diru sarrerak, baina oso ezberdina da; izan ere, gaztelaniaz aritzen diren *nfluencer*-en bueltan askoz ere diru gehiago mugitzen da. Hala ere, euskararen alde egiten den apustua gero eta handiagoa da, eta hori eskertzekoa da.

Diru sarrerak tarteko, presioa sentitu duzue noizbait?

N.R.: Orokorrean, ez. Baina lehen aipatu dudana agentzia harekin lanean hasi nintzenean, sen-

titu nuen nolabaiteko presioa. Haiek esaten zidaten zer egin behar nuen, eta hori ez zitzaidalako gustatzen hartu nuen haiekin lanean ez jarraitzeko erabakia.

J.P.: Nik ere ezetz esango nuke.

Sare sozialetan pertsonari ala haren itxurari ematen zaio garrantzi handiagoa?

N.R.: Pertsona guztiok gauza ezberdinak kontsumitzen ditugu sare sozialetan. Horrenbestez, pertsonaren eta jarraitzen dituzun profilen arabera, garrantzia ematen diozu gauza bati ala besteari. Lanean kudeatzen ditudan profiletan sortzen dudana edukia kontsumitzen duten pertsonak mezuari ematen diote garrantzia, adibidez. Gazteagoa nintzenean, aldiz, garrantzi handiagoa ematen nion irudiari. Gaur egun, denetarik aurkitu dezakezu sare sozialetan.

J.P.: Nik ez dakit galdera horri erantzuten, handi geratzen zait gaia.

Irudiak, orduan, badu gazteengan eragina?

N.R.: Zalantzarik gabe. Gainera, hori ez dut nik bakarrik esaten. Gaiaz ikerketa asko egin dira, eta adituek esaten dute sare sozialetan ikusten denak eragin zuzena duela gazteengan. Leku askotatik etor daiteke influentzia hori, gainera. Nik neuk ere erabili izan ditut filtro surrealistik batzuetan; halako gauzak eginda, gazte askok pentsa dezakete hori dela irudi erreala, baina ez da hala. Bestalde, sare sozialetan cyberbullyinga egiteko aukera dago. Eskoletan horri buruzko pedagogia lan handia egin behar da, eta gazteei erakutsi behar zaie egoera horiek nola kudeatu. Matematikako eskolen pare jarri beharreko gauza da hori. Gazteek tresnak behar dituzte, eta guk ere bai, baina urteekin gauzak ezberdintzeko buru gehiago izaten da normalean. Gaur egun ez du balio pertsona bat eskolara joan eta hitzaldi bat eskaintzeak; hori ez da nahikoa. Gazteengan eragin handia dute sare sozialek, eta hori eskoletan ondo landu beharreko zerbait da.

Sare sozialetan aldaketarik ikusi al duzue azken urteetan?

N.R.: Bai, eta ez nik bakarrik, gizarte guztiak baizik. Gauzak nahiko bare zeudela pentsatzen genuenean, TikTok azaldu zen; Facebook, berriz, itzalean geratu da. TikTok iraultzailea izan da; bai musikaren munduan, bai marketin ar



loan... Lehen asko saltzen ziren eduki luzeak, eta gaur egun, gauza bat ikusten ez ditugu hogeituro segundo ere irauten. Facebook sortu zenean, lagun artean barre egiteko eta komunikatzeko erabiltzen zen, baina gaur egun, sare sozialak komunikatzeko tresna garrantzitsu bilakatu dira. Edonork ditu sare sozialak, herrialde desberdinetako presidente guztiek, adibidez; denek komunikatzeko erabiltzen dituzte beren profilak.

J.P.: Bai, aldaketa handia izan da. Gaur egun bizi dugun egoeran hogeituro segundo ere ez ditugu jasaten bideo bati begira. Pentsa, Youtubeko iragarki bat bera ere ez dugu ikusten. Oso zaila da guztia; izan ere, bi edo hiru segundo dituzu ikus-entzunleen begietatik sartzeko.

Hori kontuan izanik, nola moldatzen zara jarraitzaileen arreta lortzeko, Julien?

J.P.: Uste dut euskarazko edukiak egiten ditudalako lortzen dudala arreta piztea. Herri-tarrak hizkuntzarekin identifikatuta sentitzen dira. Gainerakoan, ez dut ezer ezberdina egiten. Horrekin jarraituta, esango nuke gaur egun ez dela hain zaila TikTok jarraitzaileak

lortzea. Hiru edo lau bideo biral egiten badituzu, nahikoa jarraitzaile eskuratzen dituzu.

Edozerk balio al du jarraitzaileak lortzeko?

J.P.: Edozerk. Askoren helburua ikustaldiak lortzea da, eta horretarako edozer egiten dute. Edukiak ikusita, edozer gauza pentsa dezakezu haiei buruz, baina beraiek gustura egoten dira bideoa ikusi izanagatik bakarrik.

N.R.: Edozerk balio du, bai. Gaur egun denetarik egiten du jendeak. Ez dakit ona ala txarra den, baina gure arreta bereganatzea lortzen dute. Neuk ere askotan ikusi izan ditut halako edukiak, ez dut gezurrik esango; are gehiago, argazki bat ateratzerakoan bizitza galdu dute sare sozialetako erabiltzaile batzuek.

J.P.: Nereak aipatutakoari gehituko nioke sare sozialek onartu egiten dutela horrelako edukiak zabaltzea. Hori agian, mugatu egin beharko litzateke, zer dagoen ondo eta zer gaizki zehaztu.

N.R.: Instagramen nahiko zorrotz dabilta mugekin, ezin duzu ezer erakutsi.

J.P.: Hala da. Emakume batek titiburuaren zati txiki bat erakustea ez dute onartzen Instagramen, baina gero jendeak ikaragarritzko gauzak egiten ditu eta horiek onartu egiten ditu.

N.R.: Horretan bat nator zurekin, Julien. Guztiok dakigu titiburuaren gaiak zer-nolako iskanbila sortu duen. Titiburuak erakusten uzteko mugimendu bat ere izan da tartean, baina ez dute ezer lortu.

Teknologiak bere alde onak baditu, baina arriskuak ere bai. Horri lotuta, Nerea, bizi izan zenuen esperientzia nahiko gogor bat. Jendea ezagutzeko aplikazio batean identitatea ordezkatu zizuten...

N.R.: Bai. Pertsona bat nirekin jarri zen harremanetan, eta esan zidan Tinderren ikusi ninduela. Nik ez dut inoiz Tinder erabili, baina norbaitek Instagramen nituen argazkiak hartu eta profil bat sortu zuen Tinderren. Jada ez naiz oroitzen profil faltsu hartan jarri zidaten izenaz, baina A Coruña bakoitzeko nintzela zioen eta nituenak baino urte gutxiago nituela ere bai. Hori ikusita, salaketa jarri nuen, baina gaur arte ez dut ezer jakin gaiaz. Ez didate ez deitu, ez gaia aztertu dutenik esan, ez ezer. Horrekin esan nahi dudana da sare sozialetan jartzen dugunarekin ere kontuz ibili behar dugula; izan ere,

gero sareetan geratzen dira argazki horiek, eta auskalo nora iristen diren.

J.P.: Niri ez zait halako ezer gertatu, eta espero dut etorkizunean ere halakorik ez pasatzea. Uste dut halako gauzak erraztasun handiagorekin egiten zaizkiela emakumeei. Emakume baten irudiak gizon batenak baino gehiago saltzen du, zoritxarrez.

Sare sozialetan sexuen arteko arrakala hori badagoela pentsatzen al duzue?

N.R.: Bai. Sare sozial neutralez jardun gara, baina badira hain argiak ez diren beste batzuk.

J.P.: Bai, badago, eta ez nuke jakingo arrakala hori handitu edo txikitu egin den esaten. Only-Fans sare soziala nahiko zeresan ari da ematen zentzu horretan, adibidez. Ikaragarria da jendeak dirua irabazteko zer gauza egiten dituen... Sare horietan dauden pertsona guztiak benetan nahi dutelako al daude? Hori da nire galdera.

Halako sare sozial berriek beldurra ematen al dizute?

N.R.: Beldurra ez da hitza, baina erregulatu eta arautu egin behar dira horrelako gauzak. Gazteak daude tartean, eta pornografiak hitz egiten da askotan. Gaur egun kontsumitzen den pornografia min handia ari da egiten gazteengan.

J.P.: Sare sozial guztietan arautu behar dira gauzak, ez batzuetan bakarrik.

Emozionalki sortzen al dute eraginik sare sozialek?

N.R.: Bai, onerako eta txarrerako.

J.P.: Bai, dudarik gabe. Duela hilabete batzuk ikusi nuen sare sozialetako gauzek eragina zutela nigan, eta psikologoarengana joaten hasi naiz. ■



Ikusi eskusiban Julen Portillo eta Nerea Rodríguezeri egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



A hand holds a tablet displaying the UztarriaGutua website. The website features a large photo of a crowd at a festival with the headline "Astearte Karnabal goizeko diana eta sokamuturra, bideoan". Other articles include "October Festak eta Tiffanyk jaso dituzte mozorro lehiaketako sari nagusiak" and "Julen Agirre: 'Artean 2x2 ez da beti 4 izateko; izan daiteke 123, baita -20 ere'". The website has a green and white color scheme with the logo "UZTARRIA GUTUA" at the top.

bazkide@ukl.eus o 943-81 38 41

Koh Tao 

OSAGARRIAK +
PIERCING ESTUDIOA

📍 JESU OH KATOLIKO, 14-20730 AGOSTO 4, 628 138 758

LAU 

NEUMATIKOAK

PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA

943 053056 Leioa kalea 20, 200730 Agostoa

 **JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

bertako
igogailuek | ascensores

Benetako orotarik zerbitzu

100€-tik/hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena

+2.000 bezerak gugan dute konfiantza

943 903 450 bertako.eus



NON DAGO UZTARRIA? 




Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarría pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarría@gmail.com helbide elektronikora ekainaren 16a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Maiatzeko Uztarría aldizkarian Uztarría pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 43. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Koldo Okariz bazkidea izan da irabazlea.



**URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Ondo jaten ez bada, inolaz ere ezin da osasuna mantendu"

SILVANA HUEGUN NUTRIZIONISTA

Ogibidez nutrizionista, han-hemenka elikadurari buruzko aholkuak ematen aritzen da Silvana Huegun: irratian, telebistan... Haren gomendioak biltzen dituen liburu bat ere bada eskuragarri. Elikadura osasunari estuki lotutako zerbait dela uste du, eta bizitzan helburu bat izan behar dela: norbere burua zaintzea.

Testua: **Ihintza Elustondo**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Zer da ondo bizitzea? Norberak hausnartu beharreko kontua da zer opa dion bere buruari, baina gauza bat argi dago: osasunik gabe, behintzat, ez dago ondo bizitzerik. Eta Silvana Huegunen (Azpeitia, 1972) ustez, ondo elikatu gabe, ez dago osasunik. Ideia horri tiraka, han-hemenka aholkuak ematen aritzen da aspaldian Zestoan bizi den azpeitiarra. Ondo jatea ez du uste eginkizun zaila denik. "Ez da hain konplikatua, arreta jartzea da gakoa".

Nutrizionistaren figura oraindik ere existitzen ez zen garaian murgildu zen Huegun elikaduraren munduan. Giza Nutrizioa eta Dietetika ikasi zuen Iruñean, Nafarroako Unibertsitatean. "Orduan nahiko ikasketa berriak ziren. Momentu hartan, ez zegoen dietista figurarik. Askotan, erizainek egiten zituzten dietista lanak". Orain, dena den, indar handia hartu du nutrizionistaren ogibideak, eta inork gutxik zalantzan jarriko du, beste hainbat ofiziotan profesionalak behar diren moduan, elikadurarenean ere ezinbestekoak direla.

Dietetikarena orduantxe ernatzen ari zen eremua izanagatik ere, Huegunek bazuen mundu horretan murgiltzeko halako "irrika" bat. "Medikuntza ikasi nahi nuen, baina ez nuen nahi gradu horrek eskatzen duen adina urte ematea ikasten". Medikuak daukan "sendatzeko gaitasun horrek erakarri" egiten zuen Huegun, eta

oraindik unibertsitatean zer bide hartuko zuen erabaki aurretik, aldaketa bat egin zuen bere bizitzan: elikadura aldatu zuen. "Barazkijale egin nintzen. Azaleko arazoak neuzkan, eta elikadura aldatzean, ikusi nuen nire gorputzean sekulako aldaketa izan zela. Ikusi nuen elikadura sendatzeko era bat dela". Hala, medikuntzaren ideia alboratu eta elikadura ikasketak egitea erabaki zuen. Ondoren, jakintza arloa osatu nahian, beste hainbat esparrutako ikasketak egin zituen: naturopatia, iridiologia...

Denboraldi batez, atsedean etxeetan lan egin zuen Huegunek; jendea garbi jatera, baraualdiak egitera... joaten den guneak dira atsedean etxeak. Horietan lanean aritu ostean, kontsultarako jauzia egin zuen, eta gaur egun, Eibarko (Gipuzkoa) Oreka zentroan eta Zestoan pasatzen ditu kontsultak. 25 bat urte daramatza nutrizionistak kontsultan lanean, laguntza behar duten herritarren bidelagun izaten, baina eremu itxian ez ezik, plaza publikoan ere ezaguna da Huegun: Egin Irratian nahiz Euskadi Irratian kolaboratu izan du, ETB1eko *Txoriene* sukaldaritzaren programan, 7K aldizkarian ere bai... Saiatzen da, beraz, bere jardunari zabalkundea ematen. "Ez zait kostatzen jendearen aurrean hitz egitea, ikastaroak edo hitzaldiak ematea. Halako zerbait egingo al dudan galdetzen didatenean, beti baietz esaten dut, elkarriketa honen kasuan bezala". Jendearekin nahiz jendaurrean hitz egiteak bere





izaerarekin "bat" egiten duen zerbait dela nabarmendu du.

7K aldizkarian urte pila batean idatzi zuen elikadurari buruzko zutabea Huegunek, eta lan horrek eman du bere fruitua. Izan ere, zutabe hartan Huegunek idatzitakoak bildu eta liburua argitaratu zuen Gara hedabideak 2010ean: *Comer bien, para vivir mejor*—euskaraz, *Ondo jan, hobeto bizitzeko* litzateke—. Elikadurari lotutako hainbat gomendio daude jasota argitalpenean.

"Helburua ez da argaltzea"

Liburuaren izenburuak iradokitzen du ondo jateak hobeto bizitzen laguntzen duela, eta lelo hori oinarri, bidea zein den argi du nutrizionistak: "Nik beti esaten dut gure burua zaintzeak izan behar duela bizitza honetako helburua". Dena den, uda sasoia hurbiltzen ari den honetan, batek baino gehiagok jarri ohi dio bere buruari argaltzeko erronka, eta ideia horrekin ez dator bat

nutrizionista. "Pisua zenbaki bat da, erreferentzia bat baino ez. Helburuak beti izan behar du gure burua zaintzea, eta gure burua zaintze horretan, noski, elikadura oso garrantzitsua da. Ondo jaten baldin badut, hobeto sentituko naiz", dio. Dena den, norbere buruaren zaintza horretan, elikadura adar bat dela nabarmendu du, beste hainbat alor ere zaindu behar direla: "Gauza asko zaindu behar dira: atsedeen nahikoa ematea gorputzari, estresa ondo kudeatzea, ariketa fisikoa egitea, emozionalki ondo egotea... Hori dena da norbere burua zaintzea".

Askotan, atal horietako bat lantzen hastean, beste denak mugiarazten direla dio, eta haren arabera, dena lantzea da "gakoa". Hori bai, argi du zein den bere jakintza esparrua:

"Noski, ni ez naiz psikologoa, eta nik elikadura hartzen dut lanketa hori egiteko oinarritzat, baina helburua beti gure burua zaintzea dela kontuan izanda". Esamolde horrekin zer esan nahi duen adierazteko adibide bat jarri du.

"Etorri izan zaizkit kontsultara, ezkontza bat dutela-eta pisua galdu nahi dutela esanez. Hori ez da

helburu sendoa, nire ustez. Ohitura batzuk aldatzea da gakoa, ez egun puntual baterako kiloak galtzea. Norbere zaintzak ez du izan behar presazko zerbait; izan ere, bizitza guztian zaindu behar gara".

Ez du uste, gainera, pertsonaren itxura fisikoaren arabera baloratu behar denik haren osasuna.

Silvana Huegun

- **Jaiotze data:** 1972ko uztailaren 1a.
- **Ikasketak:** Giza Nutrizioa eta Dietetika.
- **Lanbidea:** Nutrizionista.
- **Nutrizionista ez banintz...** Medikua izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Txakurra hartu eta mendi buelta bat ematera joatea.

"Batzuek esaten didate: 'Nire lankideak edozer jaten du, eta argal-argala dago, eta ni, berriz, bizitza guztian zaintzen ari naiz, eta kiloak soberan ditut' ". Halako adibideak jartzen dizkienei beti ematen die erantzun bera: "Nik beti esaten diet, lehenago edo geroago, pertsona horiek beste arazo batzuk izango dituztela. Ondo elikatu gabe, inolaz ere ezin da osasuna mantendu". Dena den, iruditzen zaio gero eta jende gehiagok nahi duela ohiturak aldatzea eta norbere burua zaintzea, eta gero eta gutxiago direla beren buruari soil-soilik argaltzeko helburua jartzen diotenak. Gainera, Huegunek urteotan ikusitakoaren arabera, gaixotasun batzuek "askoz hobeto" eboluzionatzen dute elikadura egokiarekin laguntzen baldin badira.



Ondo elikatzea, garestia?

Azken boladan bolo-bolo dabil elikagaien prezioak garestitu izanaren kontua, eta ziur asko, batek baino gehiagok aldatuko zituen erosketa saskian sartutako produktuak, aurrezte aldera. Dena den, Huegunek uste du "oso garrantzitsua" dela erosten diren elikagaien ekoizpena zer-nolakoa den kontuan izatea. Azken urteotan elikagaien kalitatea "asko jaitsi" dela azpimarratu du, eta horregatik, bertan ekoiztako jakiak nahiz produktu ekologikoak kontsumitzeak "sekulako garrantzia" duela. "Ez da gauza bera supermerkatuan erositako zerbak edo ondoko baserritarrari erositakoak jatea. Frogatuta dago jaki ekologikoek askoz ere elikagai gehiago dituztela". Eta Huegunek ez du uste modu horretan jatea herritarren poltsikorako eskuragaitza den zerbait denik: "Egin dituzte horri lotutako esperimentuak, eta ez da hainbeste igotzen aurrekontua; gehiago dira gure beldurrak".

Ondo jateko gero eta kontzientzia handiagoa dagoen arren, Huegunen ustez, plazera jan-edanari lotuta bizi duen gizartea da egungoa. "Plazera askotan jan-edanarekin soilik lotzen dugu, eta planak egiterakoan, beti bazkariak, poteoak... adosten ditugu". Nutrizionistaren

arabera, jatekoak badu, "noski", alderdi emozional hori, baina oreka bilatu behar da, eta nabarmendu du plazera beste gauza askok ere ematen dutela; besteak beste, liburu eder bat irakurtzeak edo mendi buelta bat egiteak. Horri lotuta, ohartarazi du "gehiagi" jaten duen gizartea dela egungoa, eta askotan, elikagaiak ez diren jakiak kontsumitzeko joera dagoela.

Ohitura desegoki horiek azaltzeko balio dezake, Huegunen ustez, egungo gizartean elikadurari ematen zaion balioak, lehenetsunak. "Elikadurari ematen zaion balioa asko jaitsi da azken urteotan, bai jakiak prestatzen ematen dugun denborari dagokionez, bai jakiak erosten gastatu nahi dugun diru kopuruari dagokionez. Aisialdirako eta oporretara joateko badugu dirua eta denbora, baina janaria prestatzen denbora ematea denbora galtzea dela iruditzen zaigu", adierazi du. Haren iritziz, emakumea lan munduan txertatu izanaren albo kalte bat da elikadurari ematen zaion garrantzia murriztu izana. "Lehen, haurren zaintzaz eta elikaduraz arduratzen zen figura bat zegoen etxean, eta orain, galdu egin da hori. Orain, nork hartuko ditu ardura horiek, eta nola erantzungo zaie behar horiei? Ez dugu asmatu hori nola ordezkatu". ■

Margotu

Eman kolorea lagun
taide honi. Izar batzuk
ere marraztu itzazu,
gaua da eta.

Itzala

Zortzi itzal hauen
artetik zein ote da
zuzena?



GAIZVLUNPTOKIWUP IRAWUPBAZIAWUP,
VLUNPIRAWUPTXOMUJEKWUPVLUNP
VLUNPIRAWUPGAMUJZIAWUP



Zeep?!

Ezaba itzazu VLUNP,
WUP eta MUJ
guztiak eta iratxoan
gaineko esatera bat
agertuko zaizu.

DOMINOAN





Sudokua

Bete hutsuneak, IRATXO hitza osatzen duten hizkiak (I, R, A, T, X eta O) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lehen, zutabe eta araz bakoitzeko.

ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 10 dira guztira.



Engainagarriak

10 puska horetatik 5 irudi nagusitik hartuta daude eta besteak ez. Bereiz itzazu.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Faunak



IONE GURRUTXAGA

Desberdinak gara. Desberdin pentsatzen dugu, eta desberdin bizi gara. Ez dut ezer berririk esan horrekin, ez. Denboraren joanak egiten gaitu berezi, inguruak nahiz ingurukoek: bizitako guztiak uzten ditu orbanak gudan, eta halaxe joaten gara aldatzen, moldatzen, bereizten. Baina jaiotzen garen momentutik bertatik izan ohi ditugu besteengandik desberdintzen gaituzten ezaugarriak. Eskolako mahaien atzean, hankak zintzilik dabiltzan txikitxoei begiratu besterik ez dago horretaz ohartzeko. Bakoitza bere gustu eta ametsekin heltzen da eskolara, helduarora iritsi bitartean aldatzeko, moldatzeko eta bereizteko aukera emango dion tokira. Eta, helduaroan nola, halaxe elkartuko dira modukoak modukoekin.

Izan ere, eskolak helduon munduaren erreplika txiki bat baino ez dira. Helduei ikusitakoak imitatuz hazten dira, on eta txarrak hartuz. Eta, urteak joan eta urteak etorri, patroi berberak markatutako taldeak agertzen dira handiontzat hain txikia eta txikientzat hain handia den mundu horretan. Eta talde horiexek izango dira bi hankakoen fauna berezi horien osagai.

Gela guztietan topatuko dugu perfektioaren ispilua den hori,

denean ongi moldatzen den ikaslea: ikasgai guztietan ibiliko da ondo, eskolaz kanpo hamaika hizkuntza ikasiko ditu, kirolean abila izango da, belarri oneko musikari trebea... Gainera, ingurukoak errespetuz tratatuko ditu, eta behar duenari laguntzeko prest egongo da beti. Zenbait boladatan, irakasleek halako ikaslez beteak izan nahiko lituzkete gelak, zergatik ukatu, baina orduan irakasleen beharrik izango al litzateke?

Zorionez, urtea oporretan pasatzen duten irakasle horiek lana soberan izaten dute, egunero gela hankaz gora jartzeko helburuz jaikitzen diren horiek saltsa jartzen baitute eguna joan, eguna etorri. Talde heterogeneoa da horiena, bakoitza bere zoroak bizi baitu: bertan sartzen dira gelako berritsuak, esaterako, muturreko egoeretara iritsita ere, nekez isilduko direnak. Berdin da hizpidea, beti izango dute esateko zerbait, eta, gaiari buruz ez badakite ezer, zerbait asmatuko dute; beren leloa: *Ez gaituzte isilduko!* Solaskide izan ohi dituzte txiste kontalariak, Txiskolaren garaiak harapatu ez, eta burura etorritako ateraldi guztiak askatu gabe lasai geratzen ez direnak. Talde horretako kideek berritsuek baino hobeto eusten diote hitz jarioari, baina, egon lasai, momenturik desegokienetan ez baitira isilik geratuko.

Hirugarren taldean gainerako ikasle guztiak sartuko dira, bakoitza bere berezitasunekin. Talde horretan topatu daiteke, adibidez, sekula ezer topatzen ez duen hori: materialez beteak ekarriko du motxila lehen egunean, eta, hilabete pasatzerako, ez du jakingo non daukan boligrafo berdea, marrazketako koaderno, kalkulagailua, etikako liburua, etxeko giltzak, galtzerdiren bat... Irakasleak fitxak banatu baino lehen galdu egingo ditu, baina aitzakia aproposa izango du hori gelakideengana gerturatzeko: eskatuko dio bati margo arrosa, beste bati orri pentagramadun bat, kopiatuko ditu euskarako ariketak albokoaren ingeleseko koadernotik...

Mundu txiki batean hamaika izaki bizidun, fauna berezia osatuz, horixe da eskola. Eta, orain, ekainera iritsita, pixkanaka, bakoitza bere erritmoan, hibernaziotik oihan zabalera irtengo da, udako eguzki epeletara. Batzuek, egunak laburtzearekin batera, egingo dute etxerako bidea berri, eta ekarriko dituzte hurrengo belaunaldiak, ikasmahaien atzean hankak zintzilik ibiliko direnak. Beste batzuek, berri, urte luzez babesean egon ondotik, ekingo diote migrazioari: horiei guztiei, eutsi berezitasunei, eta bidaia on! ■

BADATOR UDA!

Eskuratu GUKA produktuak



Informazio guztia: www.uztarria.eus/denda/



Galdutakoen jabe bila

la egunero jotzen du herritarren batek Udaltzaingora kalean aurkitutako objekturen bat eramatera edota zerbait galdu eta inork aurkitu al duen galdetzer. Askotariko gauzak jasotzen dituzte han, eta horien jabeak aurkitzeko egin ahal guztiak egiten dituzte udaltzainek. Elementu bizigabeak bai, baina bizidunak ere jasotzen dituzte askotan.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Nerea Uranga eta utzitakoak**.



Askotarikoak dira jendeak kalean aurkitzen edota galtzen dituen objektuak: giltzak, arropa, sakelako telefonoak, diru zorroak, bitxiak, audifonoak, hortzorreak, baloiak, patineteak, bizikletak, nortasun agiriak, era askotako txartelak... Horietako asko eta asko Udaltzaingora eramaten dituzte herritarrek, eta udaltzainek galdutako elementuaren jabea aurkitzeko ahalegina egiten dute, pauta batzuk jarraituz. Urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan funtzionatzen duen zerbitzua da, eta Anartz Toledo Azpeitiko udaltzainburuak azaldu duenez, egunero-egunero jotzen du bateren batek Udaltzaingora galdu duen elementua aurkitu nahian edota kalean topatu duena eramatera.

Udaltzaingoa zer bait jasotzen dutenean, lehenik eta behin, sistema informatikoan erregistratzen dute, eta elementua aurkitu duen pertsonaren datuak biltzen dituzte. Hortik aurrera, objektuaren jabea aurkitzeko kudeaketari ekiten diote. "Objektuaren arabera, modu desberdinean kudeatzen da; esaterako, galdutako nortasun agiri baten kasuan, badakigu zein den jabea, eta ondorioz, etxera eramaten diogu edota Udaltzaingoa jasota dugula esanez telefonoz deitzen diogu hari. Sakelako telefonoen kasuan, berriz, aldea izaten da gailua piztuta dagoen edo ez; izan ere, piztuta badago, askotan jabeak deitzen du. Mugi txartelaren kasuan, herrian errolatutakoa bada, jabea izen-abizenen bidez lokalizatu ahal izaten dugu, eta ez bada horrela, Mugira bidaltzen dugu txartela, han badituztelako datuak. Audifonoak direnean, aldiz, Gaesera eramaten ditugu, agian, barruan duten

Ezkerreko irudian, jendeak aurkitutako objektuen txokoa, Udaltzaingoa egoitza.

Eskuineko irudian, kalean aurkitutako bizikletak udal biltegian jasota.



Giltzak izaten dira jendeak gehien galtzen dituen elementuak. Askotariko gauzak jasotzen dituzte Udaltzaingoan: baloiak, kaskoak, patinak, arropa, audifonoak... Bitxiak eta balio handiko gauzak giltzapean izaten dituzte gordeta.

GALDUTAKO OBJEKTUEN JABEAK AZALTZEN EZ BADIRA, BI URTEZ IZATEN DITUZTE JASOTA

UDALTZAINGOAN JASOTAKO ELEMENTUEN HIRUTIK BAT ITZULTZEN DA JABEARI

txiparen bidez jabea lokalizatu dezaketelako". Beraz, kasuan kasuan prozedura desberdinak jarraitzen dituzte, nolanahi dela ere, jabea aurkitzeko.

Udaltzainburuaren esanetan, Azpeitiko herritarrak "oro har zintzoak" dira, eta kalean aurkitutakoa Udaltzaingora eramaten dute, nahiz eta baliodun gauzak izan. "Behin herritar batek barruan 300-600 euro zituen paperezko zorro bat aurkitu eta Udaltzaingora ekarri zuen. Diru hura jabeari itzuli genion, zorroan izen-abizenak idatzita zituelako", kontatu du. Toledoren esanetan, galdutakoa berreskuratutakoan oso eskertuta azaltzen da jendea. "Batzuek galdutako elementua nork aurkitu duen jakin nahi izaten dute, eskertu ahal izateko. Guk, ordea, ezin izaten diegu esan zein izan den galdutako elementuak ekarri dituen", zehaztu du.

Jabea nor izan daitekeen jakin ezin dutenean –bitxiaren, arroparen, baloiaren, audifonoen edota betaurrekoen kasuan, esaterako– edota jabea ez bada agertzen, Udaltzaingoan gordetzen dituzte gauza horiek bi urteko epean. "Kode Zibilak hala esaten du, eta...", adierazi du Toledok. Bi urteko epean kalean aurkitutako objektuak Udaltzaingoaren egoitzan gordeta eduki eta gero, beste bide bati ekiten diote udaltzainek: elementua aurkitu zuen herritarrari deitzen diote berak jaso nahi al duen galdetzeko, edota bestela, berrerabilerara bideratzen dituzte: arropa Elkar-ekini ematen diote, Elkargunerako; betaurrekoak optikara eramaten dituzte, handik garapen bidean dauden lurraldeetara bidaltzeko; eta bizikletak GKE elkarte batera eramaten dituzte. Hala azaldu du udaltzainburuak: "Udaltzaingora ekartzen duten guztia beren jabeai itzultzen saiatzen gara, baina gauza batzuk ezin izaten dira banatu, eta kasu horietan, ekarri duenari itzultzen edota beste erabilpen bat ematen zaie. Udaltzaingoan jasota gelditzen den guztiari ahalik eta irteera egokiena ematen saiatzen gara".

Kalean aurkitutako bizikletak Loiola 91 eraikineko udal biltegian gordetzen dituzte. "Jendeak kalean aurkitu dituelako ekartzen ditu bizikletak gurera, baina beste kasu batzuetan, bizikletentzako aparkalekuetatik jasotzen ditugu. Aparkaleku horietakoren batean bizikleta bat denbora luzez utzita dagoela ikusten baldin badugu, mezu bat jartzen diogu, bi edo hiru eguneko epean jabea azaltzen ez bada,



jaso egingo dugula esanez". Dozena bizikleta inguru eta hainbat patinete dituzte gaur egun udal biltegiaren jasota.

Jendeak kalean gehien galtzen dituen objektuak giltzak direla dio udaltzainburuak. "Udaltzaingora egunero ekartzen dituzte kalean aurkitutako giltzaren batzuk". Udaltzaingoa jasotako objektuetatik hirutik bat itzultzen diote jabeari. Datuak aletu ditu Toledok: iaz 269 elementu erregistratu zituzten Udaltzaingoa, eta horietatik ehun itzuli zizkieten beren jabeai. Aurten, berriz, maiatzaren aurrenera artean, 74 objektu erregistratu dituzte, eta horietatik 29 jaso dituzte beren jabeek.

Baita bizidunak ere

Elementu bizigabeak bakarrik ez, bizidunak ere jasotzen dituzte Azpeitiko Udaltzaingoa. Hala azaldu du Toledok: "Babestuen ez dauden espezie guztiak jasotzeko eskumena du udalak, eta horiek guk jasotzen ditugu". Galdutako animalia gehienak txakurrak izaten dira, eta horiek Jose Migel Iribar *Gorriyeren* txakurren egoitzara bideratzen dituzte. "Txakurrak txipa ba al duen begiratzen du hark, gero jabeari deitzeko. Txipa ez baldin badu, berriz, Gorriyek berak eraman ohi du txakurra albaitariarengana txipa eta txertoak jartzera". Behin hilabeteko epea pasatutakoan, Usurbilen kokatuta dagoen Gipuzkoako Animalien Babeserako Elkartera eramaten dituzte txakurrak, adopzioan emateko. Txoriren batzuk ere eraman izan dituzte herritarrek Udaltzaingora, eta horrelakoetan, Gipuzkoako Aldundiko goardaren bidez, Igeldoko Animalien Etxera bideratzen dituzte horiek.

Udaltzainburuaren esanetan, egun guztiak izaten dira "arraroak", baina oraindik objektu hegalarri ezezagunak ez zaiela azaldu esan du barrez. Azkena, ordea, herritar batek deitu zien Loiolako basilikaren aurrean asto bat zuhaitz bati lotuta zegoela esanez: "Goizeko seirak inguruan jaso genuen abisua. Nonbait, bateren batek astoa solte ikusi eta zuhaitzera lotu zuen. Han ibili ginen astoaren jabea ezin aurkituta; jabea azaldu bitartean, Gorriyek hartu zuen astoa". Horrelako kasuak gutxi izaten dituzte, baina nahiko lan ematen dietela aitortu du Toledok. Galdutako umerik ere ez zaie azaldu, oraingoz, Udaltzaingoa: "Galdutako umerik ez zaigu azaldu; bai, ordea, umeak galdu dituztela-eta gurasoak haiez galdezka". ■■■■



MIEL A. ELUSTONDO

Irunberri, 1990

Gazte sasoikoak ginen eta batek daki zein pentsamendu zebiltzan gure burutzar handietan uda atari hartan. 1990. Behin eta berriz eta askotan bezala, tiro hotsa bazterretan. Guardia zibil bat hil zutela Nafarroan, eta bi ETako. Tokia ez zen ohikoa, ez zen hiria, Irunberriko arroila baizik. Bazter ikusgarria. Kanpatuta omen zeuden hiru gazte, ondoko Zangozako guardia zibilak han tokatu, hau eta hura, eta hildakoak. Harrigarriena, bertsio ofiziala, guardia zibilarena, estatuko gobernuarena. Sozialistak garai hartan. Suizidatu egin zirela ETako biak. Hirugarrena, bizirik, baina larri zaurituta, hark ere tiroa, hitz egiteko gauza ez, eta erabateko amnesia gainera. Eta besterik ez eta bertsio ofiziala. Eta zeinek sinetsi hura. Eta zeinek jakin zer gertatu ote zen. Eta nahita ere ezin jakin, ikerketarik egin gabe. Eta nola ikertu behar zuten ezer arroilan gertatukoa ezkutatu beste asmorik ez zutenek. Eta nola ikertu behar zuten ezer egia jakin nahi zutenek, epaileari diligentziak bata bestearen ondotik eskatu eta hark bata bestearen ondoren ukatu bazituen, eta lekukoak bilatzeko lanik hartu ez bazen, edo lekukorik fortunatuta ere, atzerritarrak, haiei

halamoduzko deklarazioa hartu eta Espainiatik lehenbailehen alde egiteko eta inori ezer ez esateko agindua jaso bazuten. Suizidatu egin omen ziren, batzuek. Suizidatu egin zituztela, besteek. Eta orain, hogeita hamahiru urte joan direnean, hortxe urrestildarraren liburua, bertsio ofiziala sinestuko duen amaren seme-alabarik ez dagoela erakutsiz, benetako egiaren bidean pausoak emanaz. Hamaika liburu bada bazterretan, eta, larri ibili, laster etorriko zaizkigu batetik eta bestetik udan irakurri behar omen direnen zerrenda agintzera. Aukeran, txarra ez Pako Aristiren *Irunberri, 1990: Arroilaren negarra* letu eta arroilara bertara ibilia egiteko. Zauririk itxiko ez badugu ere, gezurraren mina arindu, behintzat, arinduko digu egiatik asko duen liburua letzeak eta Irunberriraino eramateak. Hildakoen mina ez digu goxatuko, baina horixe. ■

**ETA ORAIN, HOGEITA
HAMAHIRU URTE JOAN
DIRENEAN, HORTXE
URRESTILDARRAREN
LIBURUA**



SARA AMENABAR

Maskararik gabe

Begiratu zure ingurura. Etengabe lagunekin, familiarekin, kafetegiko zerbitzariarekin, bikotekidearekin... erlazionatzen ari gara. Elkar ezagutzeko prozesua, ordea, askotan ez da "erreal" izaten. Normalean, bestearen aurrean ondo gelditzea gustatzen zaigu, bestearen gogoko izatea, besteak gu ez baztertzea. Gure alderdi politenak erakusten ditugu, gure aurpegi onena ipiniz.

Gure aspektu dibertigarrienak erakustea zoragarria da. Horrela jarraitu dezakegu, baina gure erlazionatzeko modura "errealitate" gehiago gehituz. Laburbilduz, garen bezalakoak izanez, horrek dakarren inperfektutasunarekin. Gaizki gauden egunetan, ez daukagu zertan maskara ipini. Gustuko pertsonarekin hitzordu bat daukagunean, gure zauri emozionalen inguruan hitz egin dezakegu, hark gure osotasunean onar gaitzan.

Besteen onarpena nahi dugu, baina lehenengo geurea izan behar dugu. Besteak osotasunean ezagutzen gaituenean, bi aukera izango ditu: onartu ala baztertu. Ezin dugu mundu guztiaren gogoko izan. Baztertzen gaituenak, merezi ez gaituen seinale. Eta onartzen gaituenak, disfrutatu gaitzala maskararik gabe! ■



TiEN21ESNAOLA



ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK



San Juan auzoa, 16
AZKOITIA
943-85 21 10

Geltoki bidea, 1
ZARAUTZ
943-13 50 16

Santiago auzoa, 12
ZUMAIA
943-14 34 43